



ERRONKA: DISEINATU LANDARE-LABIRINTO BAT

Landareak hazi egin daitezke behar dituzten gauzak eskuratzeko; eguzki-argia, esaterako. Gai izango ote da zure landarea labirintoan zehar hazteko eta argitara iristeko?

ZEREGINA: Itsatsi kartoi- edo paper-zatiak kaxa baten barruan, eta sortu labirinto bat kaxaren behealdean egongo den landarearen eta goiko aldeko argi-zuloaren artean.

MATERIALAK

- Kartoi-zko kaxa bat, goiko aldean zulo bat eginda
- Leiho eguzkitsu bat
- Babarrun-ernamuin bat (zentimetro batzuk izan behar ditu)
- Kartoi- edo paper-zatiak
- Karrozari-zinta

GAKOAK

- Ziurtatu kaxara sartzen den argi bakarra goiko zulotik datorrela. Estali argiari kaxara sartzen uzten dioten gainerako zulo guztiak.
- Labirintoa bukatu ondoren, jar ezazu ahalik eta eguzki-argi gehien iritsiko zaion lekuan.
- Egin jar eta ken daitekeen ate bat, estalki bat edo antzekoren bat, landarearen aurrerapena ikusten joateko.
- Ez ahaztu landarea sarri ureztatzea.

Gehiago nahi baduzu...

DISEINA AL DEZAKEZU LABIRINTO BAT, OSO BIHURRIA, LANDAREARI HIL AURRETIK EGUZKI-ARGIRA IRISTEKO AUKERARIK EMANGO EZ DIONA?

NOLA ALDATZEN DITU KAXAREN TAMAINAK (ADIBIDEZ, TXIKIA EDO HANDIA IZATEAK) LANDAREA EGUZKI-ARGITARA IRISTEKO AUKERAK?

NOLA ALDATZEN DU LABIRINTOKO BIRA-KOPURUAK LANDAREAK ARGITARA IRISTEKO BEHAR DUEN EGUN-KOPURUA?

ZURE USTEZ, LANDARE-MOTA BATZUK (ADIBIDEZ, ILARRAK EDO BABARRUNAK) BESTEAK BAINO HOBEAK AL DIRA LABIRINTOA IGAROTZEN?

ZER GERTATZEN DA ZULO BAT BAINO GEHIAGO EGITEN BADITUZU ARGIARI PASATZEN UZTEKO?